

COVID-19, Herria zaindu dezagun

EH Bildutik hasiera beretik
COVID-19ak sortu duen osasun
eta ekonomia krisiari aurre
egiten aritu gara, eremuz eremu
eta dagokigun erantzukizunez,
proposamenak egin edota
aktibatzen.

Udaletan zuzeneko gestioa egiten gabilta, zaintzari, kontratazio publikoari, zaugarritasunak ekiditeari, tasei edota zerbitzuen mantenuari dagozkion irizpideak etengabe ematearekin batera, gobernatzen dugun udaletan guztiak aplikatzen ari baikara. Ildo beretik gabilta lanean gainerako erakundeetan ere, Gasteiz eta Nafarroa izan, edo Madril zein Bruselara iritsita.

Bizitzaren aldeko hautu radikala da gurea, inor bazterrean utzi nahi ez duena eta aberastasuna banatu eta oparotasuna denontzat bilatzen duena. Neurriak COVID-19aren ondorioz sortutako larrialdian gure herritarrak zaindu eta babesteko beharretik edo/eta arduratik sortzen dira. Herritarren babesa, zaintza eta larrialdiaren kalteordainak murriztea eta etorkizunerako baldintza berriak ezartzeko ardura, hartzen dugu gure gain, inor bazterrean utzi gabe.

Osasun eta sozioekonomikoa den azken krisi honek, agerian utzi du berriro ere, Estatuko markoa agortua dagoela, eta EAJ-PSE-PSNren gobernuek ez dutela askoz hobeto egin. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa bilakatu da burujabetzaren bidetik herri honen izaera produktibo, erreproduktibo eta sozialari erantzungo dion marko berria eraikitzea.

Lidergo publikoen garaia da, elkar zaindu eta babesten duen eta denontzat aukerak sortzen dituen herri duin bati dagozkion mailako politika publiko eta komunitarioak artikulatzeko garaia. COVID-19tik babestu behar ditugu herritarrak, baina baita, langabeziatik, pobreziatik, babes faltagatik, zaugarritasun egoeretatik, zorretatik, etxedesjabetzeetatik. Politika desmerkantilizatu eta bizitza zentroan jartzeko garaia da.

Horretarako, Euskal Herria Bilduk une edo fase desberdinetarako proposamena aurkezten du.

LEHEN FASEA: PERTSONEN OSASUNA ETA EKONOMIA BABESTU

- **Test azkarrak guztiontzat.**

Herritar guztioi test azkarrak egin behar zaizkigu, birusaren eboluzioaz datu errealak eskuratu eta hari lehen bait lehen aurre egiteko.

- **Osasun sistema indartu.**

Segurtasun eta prebentzio baliabideak langile guztien eskura jarritz, arnagailuak urjentzia guztietara helaraziz, urjentziak berrantolatuz. Konfinamendua altxatzen denerako bigarren fasea diseinatuz eta baliabide nahikoez hornituz.

Ezinbestekoa ez den jardun ekonomikoa guztiz eten.

Konfinamendua ahalik eta zehatzena izan dadin. Hau gertatzen den bitartean, enpresak, autonomoak eta kooperatibak haien jarduna etenda mantendu dezaten beharrezkoak diren neurri sozial eta ekonomikoak aktibatu behar dira. Bai eta langileek haien diru-iturriak bermatuak izateko neurriak.

- **Lan presentziala egin beharko duten langile guztiei osasuna babesteko neurriak.**

Maskarilak, testak, prebentzio protokoloak ezarrit.

- **Estatutik datozen laguntzak osatu.**

Gasteiz zein Nafarroako gobernuetatik gastu publikoa handitu eta neurri fiskal justuak aktibatuz.

BIGARREN FASEA: OMEREN IRIZPIDEAK JARRAITUZ, TESTEOA ETA ARAKATZE MASIBOAK EGIN

Gailurra gainditu eta hazkunde-indizea 0.5era jaitsi ondoren (0.3 eta 0.5 artean), konfinamendu-neurriak pixkanaka altxatzen hasi ahal izango gara. Edozein kasutan altxatze mailakaturik izango da, eta uneko kutsatzeak emango direla aurreikusi daiteke, horregatik ahalik eta prebentzio neurri egokienak eta osasun artapen zehatzenak aurretiaz ezarri beharko ditugu.

Horregatik honakoa proposatzen dugu:

- **Egoera ebaluatu pandemiaren gailurrera iristean.**

Orduan aztertu noiz eta nola eman amaitutzat lehen fasea.

- **OME erakundearen osasun irizpideak jarraituz, masiboki testatu eta sakon arakatu**

Epidemiaren garapen mailaren argazki erreala izan dezagun eta beharrezko neurri prebentibo zein asistentzialak ezartzeko

- **Estrategia dibertsifikatua, deszentralizatua eta tokian bertan egina, tresna digitalak eta prozedura komunitarioak konbinatuz, positiboak detektatzeko.**

Kutsatutako pertsonak izan dituzten kontaktu fisikoak arakatu, berrogeialdian jarri, testatu eta konfinatu ahal izateko, positibo ematen badute. Fokuak agertzen badira, tokiko konfinamenduak aplikatu beharko dira, nazioarteko erakundeek gomendatzen dutenez.

TALKA PLANA EREMU SOZIOEKONOMIKO ETA SANITARIOAKO

• BERE JARDUERAREN GASTU FINKOEN % 80RAINOKO DIRU-LAGUNTZA 3 HILABETEZ NEGOZIO TXIKIENTZAT.

Ezarritako konfinamendu neurrien ondorioz bere jarduna eten behar izan duten merkataritza txiki, ostalari eta bestelako negozio txikiek beren diru sarrerean %40tik gorako murrizketa jasaten badute bere jardunaren gastu finkoen %80a bitarteko diru laguntza jaso ahal izatea, hiru hilabetez.

• % 75EKO KONPENSATZIOA GALERAK

Jarduera etetearen ondorioz beren diru-sarreren %30tik gora murriztuta ikusi duten Autonomo eta mikroenpresek galera horien %75aren konpentsazioa eskatu ahal izatea hiru hilabetez.

• KALERATZEAK EKIDITEKO ETA ENPLEGUAK MANTENTZEKO DIRU LAGUNTZAK:

Larrialdian enpleguak mantendu eta kaleratzeak edo ERTEak ekiditearen alde egiten duten enpresei soldaten gastua konpartitzeko diru laguntza lerro bat ireki: Nominaren % 75 ordaintzeko diru laguntza jasoko dute enpresek; gainontzeko % 25 enpresaren kontu geratuko da eta langileek ordaindu gabeko 5

egunetako baimena eskatuko dute.

Orduka lan egiten duten langileen kasuan, beren zaurgarritasun maila eta kaleratuak izatearen arriskua handiagoak izanik, %90 arte zabalduko da laguntzaren zenbatekoa.

• ENPRESA TXIKIENTZATKO ZERGEN SUSPENSIOA

Bere jarduera etetera behartutako Enpresa txiki eta ertainentzako, autonomoentzako, lehen sektoreko ekoizle, ostalari eta tokiko merkataritza txikientzako zergen suspentsioa gauzatu larrialdiak irautean duen bitartean

Beren diru sarreren %40 murriztuta ikusi duten enpresen zergen kitatze partziala aztertu

Jardunaren eteteak iraun bitarteko OHZ (IBI)-a barkatzea denda edo taberna edo jatetxe gisa ustiatzen dituzten lokalen jabeei.

• AUTONOMOEN KUOTAK ORDAINTEKO DIRU LAGUNTZA LINEA ZABALGARRIA

Kontziliazio, gaixotasun edo hartutako neurrien eraginez beren jarduna eten behar izan duten edo beren diru sarrerak %30an murriztuta ikusi dituzten langilerik gabeko autonomoei dagozkien autonomoen kuotak ordaintzeko diru laguntza linea zabalgarri bat martxan jarri.

TALKA PLANA EREMU SOZIOEKONOMIKO ETA SANITARIORAKO

• FINANTZAKETA-LERRO BERRIA% OAN INTERESGARRIAK

Beren jarduna eten edo larrialdiaren ondorioz, beren diru sarrerak murriztuta ikusi dituzten enpresa, autonomo, lehen sektoreko ekoizle, ostalari eta tokiko merkataritza txikientzako 0 interesdun finantziario lerro berria ireki.

• LANGILEEN LAN OSASUNA ETA ESKUBIDEAK BERMATZEKO IKUSKARITZA PLAN BEREZIA ABIATU

Langile guztien osasun eta segurtasuna bermatzeko neurriak aktibatuko dira eta, larrialdiaren aitzakian eman daitezke lan eskubideen zapalketak ekiditeko ikuskaritza indartuko da.

Premiazko diren zerbitzuren batean lan egiten duten herritarren osasuna lehentasun bilakatu behar da eta OSALANek zein Nafarroako Osasun Laboraleko Institutuak bere gain hartu behar dute langileen lan osasuna eta eskubideak bermatzen direnaren ikuskaritza ardura:

Bere jarduna mantendu behar duten enpresa eta erakunde guztietan, COVID-19aren ondorioz sortutako lan arriskuen balorazioa egin eta lan arrisku horiek kudeatzeko kontingentzi plan bat dagoela ziurtatuz; jardun guztietan lan osasun eta segurtasuneko baldintzak ematen direla bermatuz.

Oinarrizko zerbitzu horien jarduna osasun berme guztiekin burutzen ari direla ziurtatzeko ikuskaritza bereziak burutu.

Ezinbesteko jardunean diharduten lan osasuna eta segurtasuna bermatzeko neurri bereziak aktibatu.

TALKA PLANA EREMU SOZIOEKONOMIKO ETA SANITARIOAKO

Ezinbesteko diren jardun ekonomikoetako langileek bermatuta izan behar dituzte osasuna eta segurtasumen bermatzeko kasuan kasuko ekipamendu egokiak.

Ekipamendu horiek ere ezinbesteko izango dituzte ezinbesteko diren jardunetako zentruetan lan egiten duten zerbitzu auxiliarretako langileek (garbitzaile, mantenimenduko behargin, segurtasuneko behargin...).

Ardura publikoko izanik, ezinbesteko diren zerbitzuetarako kontratatuak izan diren enpresek langileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko kasuan kasuko ekipamendu egokiak bermatu.

Ezinbestekoa ez den jarduera ekonomikora ezin bideratzea beren jarduerarekin jarraitu behar duten sektoreetan edo herritarrentzat oro har, eta bereziki sektore ahulenentzat beharrezkoak diren segurtasun-ekipamenduak.

Ezinbesteko jardueran diharduten langileei orori jarduna amaitu ondoren konfinamendua aurrera eramateko doako etxebizitza alternatibak eskeini esentziala ez den jardueraren eteteak irauten duen bitartean.

ERTEetako Langabezi saria, gutxienez, 1.200€taraino konpentsatzeko mekanismoa habilitatzea DSBEren sistemaren baitan.

- Bere jarduna eten eta diru sarrera gabe geratu diren edo beren diru sarreretan %40tik gorako murriztea jasan duten autonomo, merkatari txiki, ostalari eta etxeko langileei **1.200€ko gutxieneko diru sarrera bermatzea**, Estatuak horretarako habilitatutako neurriak osatuz eta zabalduz.

- Langile eta enpresaren adostasunarekin **telelana burutzeko bitartekoak aktibatze**ko diru laguntza **lerro berri bat** ireki eta administrazioak bere esku dituen aplikazio eta bitartekoak enpresen esku jartzeko bideak bilatu.

- **Parke publikoko etxebizitzetan alokairurik ez kobratu**, ez Gobernuenak diren parke publikoan, ez udalena den parke publikoan, ezta bitartekaritza programetako alokairu babestura bideratutako etxebizitzetan.

- **Etxebizitza prestazio osagarria eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa berehalakoan bermatu** egoera honen ondorioz beraien diru sarrerak murriztuak ikusi dituzten herritarrei.

TALKA PLANA **EREMU SOZIOEKONOMIKO ETA** **SANITARIORAKO**

- **Hipoteken kondonazioa Larrialdi egoerak iraun bitartean ERTE bat jasan edo langabezian geratzen diren langileei,** eta bere jarduna eten behar izan duten autonomoei.
- **Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan alokairua edo hipoteka mailegua ordaintzeko gehienezko zenbatekoak igo** eta hauek jasotzeko hainbat baldintza malgutu edo/eta ezabatu.
- **Alokairu babestuko parkearen alokairu kontratuak automatikoki luzatu. Kaleratze prozesuak eten eta berririk ez egin.**
- **Publikoak diren horniduren kasuan, kobraketarik ez egin.** Argindarra, gasaren eta telefoniaren hornitzaile diren enpresak irterpelatu.